

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ERREFORMAREN ALDAKETA NAGUSIAK



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURREKARIAK

- ▶ **Legegintzaldiko konpromisoa.**
- ▶ **Abiapuntua:** 4/2005 Legea, aitzindaria, integrala, ebaluatua eta saritua.

IZAPIDEAK

- ▶ **Aurretiazko parte hartzeko prozesua** (2017ko azaroa - 2018ko maiatza)
- ▶ **Jaurlaritzan izapidetzea** (2019ko martxoa - 2020ko urtarrila)
- ▶ **Lehen aldiz Legebiltzarrera bidali** (2020ko otsaila)
- ▶ **Bigarren aldiz Legebiltzarrera bidali** (2020ko abendua)
- ▶ **Legebiltzarraren onespena** (2022ko martxoak 3)
- ▶ **EHAAn argitaratzea** (2022ko martxoak 17)

ERRONKA NAGUSIAK IDENTIFIKATZEKO ITURRIAK

- ▶ **Istanbulgo Hitzarmena (2014)**
- ▶ **NBEren 2030 Agenda (2015)**
- ▶ **Estatu-Ituna (2017)**
- ▶ **Estatuko lege berriak (berdintasuna, adingabeak, biktimak)**
- ▶ **4/2005 Legearen ebaluazioak**
- ▶ **NBEren programako lan-prozesua**
- ▶ **Mugimendu feministaren aldarrikapenak**

ERREFORMAREN SINTESIA

- ▶ **Berdintasun-politikak sektore publiko osora hedatzea.**
- ▶ **Sektore pribatuak funts publikoak eskuratu ahal izateko baldintzatzat ezartzea** hark berdintasunaren alorreko legeria betetzea, kontratu eta dirulaguntzetako berdintasun-klausulen bidez.
- ▶ **Oraindik ere badauden desberdintasunak ezabatzea**, kultura, hezkuntza, enplegua, osasuna, gizarte-zerbitzuak eta bestelako esparru giltzarrietan indargarriak ezarriz.
- ▶ **Zaintza-lanak erdigunera ekartzea**, zainketak eskaintzeko modu unibertsal eta publikoaren, enplegu-egituren egokitzapenaren eta gizonen erantzunkidetasunaren bidez.
- ▶ **Indarkeria mota guztien aurkako erantzuna indartzea**: adingabeak, zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeak, erreparazioa, nahitaezko prestakuntza...

HERRIALDE-ITUN HANDI BATEN ALDE

- ▶ **Legeak beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoa** desberdintasunaren eta generoan oinarritutako indarkeriaren arazo unibertsal, egiturazko eta dimentsio anitza gainditzeko.
- ▶ Horregatik, beharrezkoa da legearekin batera **berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako herrialde-itun handi bat** hitzartzea; eta horretan ari gara lanean zeresana duten eragileekin, Nazio Batuen **Generation Equality** ekimenaren barruan.

ALDAKETA NAGUSIAK

A) LEGEAREN IZENBURUA ETA XEDEA

- ▶ **Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizimodua** lortzeari buruzko aipamena jasotzen da beren-beregi.

B) LEGEAREN PRINTZPIO OROKORRAK

► Lehendik zeudenei, **printzipio orokor berriak** gehitzen zaizkie:

EAlMa prebenitzea eta ezabatzea, interseksionalitatea, sexu- eta/edo genero-identitatea eta gorputz-autonomia askatasunez garatu ahalizatea, emakumeak ahalduntzea, gizonen inplikazioa, nazioartekotzea, parte-hartzea, berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea, eta hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea.

B) LEGEAREN PRINTZPIO OROKORRAK

► Zehatzago adierazten da ordezkaritza orekatuaren printzipioa:

Epaimahaietan, hautaketa-epaimahaietan eta pertsona anitzeko beste administrazio-organo batzuetan aplikatuko da, baita kargu publikoak eta sozietate publikoetako administrazio-kontseiluetako kideak eta EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeen gobernu-organoetako kideak izendatzerakoan ere.

B) LEGEAREN PRINTZPIO OROKORRAK

- ▶ **Ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatzea salbuesten** da, sektorean sexu baten ordezkartza % 40tik beherakoa denean. Kasu horretan, ordezkartza proportzionala eskatu beharko da, honako kasu hauetan izan ezik:
 - ▶ Emakumeen ordezkartza % 60tik gorakoa bada, desberdintasuna zuzentzea dela eta.
 - ▶ Sexu jakin bateko pertsonarik ez badago gaitasunik duenik, edo gaitasuna izan arren, ezin badute.
 - ▶ Izendapenak karguaren arabera edo hainbat erakunderen artean egiten direnean.

C) FINANTZAKETA

- ▶ EAEko Administrazio Publikoak sustatuko du **bere aurrekontuen gutxienez % 1 berdintasun-politika**tara bideratzea.
- ▶ **2030erako % 1,5era** iristea aurreikusten da.

D) ERAKUNDE-ANTOLAMENDUA

- ▶ Erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, partzuergoek, fundazioek eta enpresa partaidetuek, kapital publikodunak badira nagusiki, eta **50 langile baino gehiago** badituzte, berdintasun-unitateak edo zerbitzu-unitateak izango dituzte, beren antolakundean berdintasun-politikez arduratuko diren langile espezializatuekin.

E) PLANGINTZA

- ▶ EAEko Berdintasunerako **Plan Orokorra legegintzaldi-iraupenekoa izateko muga kentzen da**, indarraldi luzeagoa edo laburragoa duten planak onartu ahal izateko.
- ▶ Berdintasunerako planek **izan behar dituzten gutxieneko edukiak** zehazten dira.
- ▶ Adierazten da berdintasunerako planen **helburu, ekintza eta adierazle nagusiak** eta haiei dagozkien ebaluazio-adierazleak kasuan kasuko administrazio publikoen **izaera estrategikoko planetan sartu behar direla**.

E) PLANGINTZA

- **Berdintasun-planak eduki eta aplikatzeko betebeharra hedatzen da hauetara:**

Eusko Legebiltzarra, batzar nagusiak, Arartekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, EHU, eta partzuergoak, fundazioak eta enpresa partaidetuak, EAEko erakunde publikoen kapitala dutenak nagusiki.

E) PLANGINTZA

- ▶ EAEko botere publikoek **beren plan sektorialetan eta estrategikoetan genero-ikuspegia txertatzera** eta berdintasuna sustatzera eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzerako bideratutako neurriak hartzeko betebeharra ezartzen da, bai eta plan horiek emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko ebaluazio-adierazleak ezartzekoa ere.

F) ESTATISTIKAK ETA AZTERLANAK

- Emakunderen barnean, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Behatokia** sortzen da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoeraren eta bilakaeraren ikuspegi orokorra eta iraunkorra izateko tresna da, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaia barne, baita Euskal Autonomia Erkidegoan eta EAEko botere publikoek eremu horretan egindako jarduketan eragina ebaluatu ahal izateko ere.

G) LANGILEEN GAIKUNTZA

- ▶ Emakumeen eta gizonen **berdintasunari buruzko nahitaezko prestakuntza** ezartzen da EAEko botere publikoetako **langile guztientzat**.
- ▶ Beren-beregi emakumeen eta gizonen **berdintasunari buruzkoa ez den prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzeko** betebeharra ezartzen zaie EAEko botere publikoei; hartarako, prestakuntza-eskaintzak aztertu eta dagozkien egokitzapenak egin beharko dituzte.

H) ARAUGINTZA

- ▶ **Xedapen orokorren izaera juridikoa duten planek**, batez ere lurralde-eta hirigintza-planek, generoaren araberako **eraginaren aldez aurreko ebaluazioa** eduki behar dute.
- ▶ Generoaren araberako **eraginaren aurretiazko ebaluazioak** egiteko betebeharra Eusko Legebiltzarrean eta batzar nagusietan sortzen diren **lege-proposamenek eta foru-arauen proposamenek** ere izango dute.

H) ARAUGINTZA

- ▶ Honako hau proposatzen da **hautaketa-prozesuetarako**:
 - ▶ Alde batetik, **lanbide-esperientziaren ondorioetarako**, izangaiek **zaintza-lanetarako edo genero-indarkeriagatik** eszedentzian edo baimenean eman duten denbora kontuan har dadila.
 - ▶ Bestalde, **haurdunaldi-, erditze- edo edoskitze-kasuetan probak egiteko ordua edo lekua aldatu** ahal izatea.

H) ARAUGINTZA

- ▶ Kontratuak eta dirulaguntzak jasotzeko aukeratik kanpo geratzen dira berdintasun-arloan zehatu dituzten edo berdintasuneko lege-**betebeharrak betetzen ez dituzten enpresak**, berdintasun-planei, ordainsarien gardentasunari eta berdintasunari eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeari dagokienez.
- ▶ Gainera, **berdintasun-klausulak** (adjudikazio- edo balorazio-irizpide espezifiko bat barne, gutxienez baremoaren % 5ekoa izango dena) sartu beharko dira dirulaguntza eta kontratu guztietan, objektiboki eta modu arrazoituan emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutela justifikatzen denean izan ezik.

I) IRAKASKUNTZA

UNIBERTSITATEZ KANPOKOA

- ▶ Hezkuntza-administrazioa behartuta dago **hezkidetza-planak egitera eta egikaritzera**.
- ▶ Ikastetxe guztiak behartuta egongo dira **hezkidetza eta berdintasuneko arduradunak edukitzera**, behar besteko prestakuntzarekin, irakasleen artean eta ikastetxeen ordezkaritza goreneko organoetan.

I) IRAKASKUNTZA

UNIBERTSITATEKOA

- ▶ EAEko Administrazioak sustatuko du EAEko unibertsitate-sistemako unibertsitateek **genero-ikuspegia txertatzea beren diziplina eta jakintza-alor guztietan**; eta, bereziki, **hezkidetzari buruzko eduki espezifikoak** txertatzea unibertsitatez kanpoko hezkuntzako irakasleei zuzendutako prestakuntzan, eta berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzkoak, biktimei arreta ematen dieten profesionalei lotutako karreretan eta komunikazioarekin zerikusia dutenetan.

K) ETXEKO LANAK ETA ZAINZA-LANAK

- ▶ EAEko botere publikoek **etxeko lanen eta zaintza-lanen balioa balioetsi behar dute aurrekontuen eta politika ekonomiko eta sozialen diseinuan, bizitzaren iraunkortasuna eta zaintza-lanak erdigunean jarriko dituen eredu ekonomiko eta sozial baterantz eraldatzen laguntzeko.**
- ▶ Era berean, **profesionalak ez diren zaintzaileen atsedenerako eskubidea** gauza dadila lortu behar dute.

K) ETXEKO LANAK ETA ZAINZA-LANAK

- ▶ EAEko botere publikoek zaintzaren **erantzukidetasun soziala** sustatu behar dute, honako neurri hauen bidez:
 - ▶ **Enpleguaren egiturak egokitzea bai eta enpresen kultura eta praktika ere**, besteak beste kontziliazio erantzukidearen bidez.
 - ▶ **Zainketen zuzkidura unibertsal eta publikoa**, zerbitzu eskuragarri, malgu, kalitatezko eta irisgarrien bitartez.
 - ▶ **Gizonen erantzukidetasuna** sustatzea eta beraien artean **zaintzaren etika eta praktika** orokortzea.

L) ENPLEGUA

- ▶ EAEko administrazio publikoek **emakumeak kontratatzeko ekintza positiboak ezarriko dituzte** emakume gutxi dabilen **lanbide eta sektoreetan**, bereziki, ekonomian **estrategikoenetakotzat** jotakoetan.
- ▶ EAEko sektore publikoarekin kontratatzen edo handik dirulaguntzak jasotzen dituzten enpresa eta antolakundeentzako baldintza gisa ezartzen da emakumeen eta gizonen arteko ordainsari **berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioa betetzea**.
Horretarako, EAEko botere publikoek beharrezkoak diren berdintasun-klausulak ezarriko dituzte eta soldatak edo ordainsariak kontrolatzeko sistema egokiak eratuko dituzte.

L) ENPLEGUA

- ▶ EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, **zaintza-zerbitzuak ematearekin zerikusia duten sektore profesionalen enplegu-baldintzak hobetzea sustatuko dute, batik bat familia-etxeko zerbitzuetan**, sektore horretako enplegu duinari buruzko LANEren hitzarmenetako aurreikuspenak bete ahal izateko, besteak beste.
- ▶ Era berean, EAEko Administrazioak, familia-etxeko langileei dagokienez, **doako aholkularitza juridikoa** eskaini eta **lan-bitartekaritza publikoa** sustatuko du, prekaritate-egoerak eta eskubideen urraketak saihesteko.

M) GIZARTERATZEA

- ▶ EAEko administrazio publikoek neurri egokiak hartuko dituzte **zaurgarritasun-egoera larrienetan dauden emakumeen eta kolektiboen premia espezifiko**ei erantzuteko: guraso bakarreko familiak, emakume adintsuak, migratzaileak, gutxiengo etnikoak, desgaitasuna dutenak, presoak, prostituzioan aritzen direnak, etxerik gabeak eta gizarte-bazterketa larrian daudenak.
- ▶ Gainera, aurreko paragrafoetan **aipatutako kolektiboen interesak ordezkatz**en **dituzten emakume elkarteei parte hartzeko bide egokiak** bermatuko zaizkie, artikulua honetan aurreikusitako neurriak landu eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Era berean, **heritarrak sentsibilizatzeko estrategiak diseinatu beharko dituzte**, gizarte-diskriminazioaren eta pairatzen duten indarkeriaren oinarri diren **aurreiritziei eta estereotipo**ei aurre egiteko.

N) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA (EAIM)

- ▶ Berresten du **indarkeria matxistaren sustraia** emakumeek pairatzen duten **desberdintasunean** eta diskriminazioan **datzala**, eta indarkeria horren aurkako legerik integralena berdintasun-lege bat dela, desberdintasun guztiei heltzen diena. Alde horretatik, eta proiektuaren memoria ekonomikotik ondoriozta daitekeenez, proposatzen da **berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea, eta berdintasunerako erakunde eta zerbitzuei aintzatespen handiagoa ematea**, horiek benetako lidergoa izan dezaten berdintasun-politiken sustatzaile gisa, bai eta indarkeriaren arloko jarduketan ere.
- ▶ Etxeko indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimei arreta emateaz harago, **indarkeria matxistaren adierazpen guztien**, esaterako, genitalen mutilazioaren edo emakumeen salerosketaren, **biktimei arreta emateko sistema** arautzen eta **hedatzen** du.

N) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA (EAIM)

- ▶ **Haur eta nerabeei babes handiagoa ematen die**, haien interesaren defentsaren **printzipioa gidarizat** hartuz, **haien beharretara egokitutako arreta-zerbitzuak badaudela** bermatzeko betebeharra ezarriz EAEko administrazioei, indarkeriaz hildakoen **umezurtzentzako laguntza espezifiko** bat sortuz, urtean 5.000 euro ingurukoa, memoria ekonomikoaren arabera, eta neurriak hartuz aintzat ez daitezen har helduen interferentzia edo manipulazioa (adibidez, **guraso-alienazioaren sindromea** deitua) dakarten planteamendu teorikoak edo berme zientifikorik gabeko irizpideak.
- ▶ **EAIM kontzeptua garatzen da**, eta **biktimei babesa ematen dieten pertsonen aurkako indarkeria** ere kontuan hartzen da, bai eta **biktimen ingurune hurbilaren edo afektiboaren aurka egindakoa** ere, batez ere seme-alaben edo bestelako senideen aurka emakumea atsekabetzeko borondatearekin egindakoa.

N) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA (EAIM)

- ▶ **Salaketaren eta ikuspegi polizial-judizialaren zentraltasuna gainditzeko**, neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea jartzea aurreikusten du, bai eta haien arreta integrala bermatzea ere, prozedura judizialarekin duten inplikazio- edo lankidetzaren maila edozein izanda ere.
- ▶ Beren-beregi jasotzen du **interseksionalitatea** printzipio orokorren artean, esku-hartze publikoaren ikuspegi inspiratzaile modura, eta indarkeriaren aurrean erakundearen erantzuna egokitze beharra ezartzen du, bermatuta egon dadin biktima ororen **arreta integrala, doakoa eta kalitatezkoa** jasotzeko eskubidea, alde batera utzita biktimen egoera pertsonala, soziala eta administratiboa, bereziki **egoera ahulenean dauden** kasuan.

N) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA (EAIM)

- ▶ Indarkeria matxistaren aurkako erantzunean inplikaturik dauden EAEko botere publikoetako langile guztientzat **berdintasunari buruzko nahitaezko prestakuntza** ezartzen du.
- ▶ Sistema bakoitzak bere profesionalei eman behar dien prestakuntzaz gain, **profesionalentzako prestakuntza-tresnak eta truke-espazioak izateko betebeharra ezartzen du**, indarkeria matxistaren aurkako esku-hartzean denek berdin ikastea eta ikuspegi partekatua errazteko.
- ▶ Horregatik, legeak esaten du beharrezkoa dela gizarte osoari zuzendutako gizarte-kontzientziazioko **kanpainak eta programa instituzionalak** egitea, eta jarraitutasuna ematea, batez ere **gizonei eta mutikoei** zuzendutakoei, bai eta **emakumeak ahalduntzeko programak** eta informazio-kanpainak egitea ere.

N) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA (EAIM)

- ▶ **Oro har, indartu egiten ditu** indarrean dagoen legean jada aurreikusita dauden berdintasunerako eta emakumeak ahalduntzeko neurriak, eta, bereziki, **kulturaren, hezkuntzaren** eta informazioaren eta komunikazioaren **teknologia berrien** alorrekoak.
- ▶ Hezkuntza-, osasun-, polizia-, justizia-, lan- eta gizarte-alorretako profesionalentzako **detekzio protokolo eguneratuak** edukitzera behartzen du, modu proaktiboan eta koordinatuan jardun dezaten indarkeria-kasuak detektatzeko eta behar bezala bideratzeko.

N) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA (EAIM)

- ▶ Espedienteen **kudeaketa integratua** eta indarreko **erakundearteko akordioak** eta koordinazio-protokoloak **eguneratu** beharra aurreikusten du, eta baita akordio eta protokolo berriak lantzea ere, halakorik ez dagoen alorretan.
- ▶ Indarkeria matxistaren adierazpenei buruzko **informazio partekatua emateko sistema elektroniko bat** ezartzeko beharra ezartzen du, eta **biztanleria osoari buruzko prospekzio-inkestak eta aldizkako ebaluazioak** egitera behartzen du, arazoaren munta eta baliabideen eskuragarritasuna, erabilgarritasuna eta kalitatea ezagutzeko, etengabeko hobekuntzaren eta kontuak ematearen ikuspegitik.

N) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA (EAIM)

- ▶ Arriskuaren balorazioaren emaitzaren arabera beharrezkotzat jotzen diren **polizia-babeseko** neurriak ezartzera behartzen du, **baita biktimak salaketarik ez jartzea erabakitzen duenean** eta ebazpen judizial baten ondorioz kasua artxibatzen denean ere, indarkeria-arriskua sumatzen den bitartean.
- ▶ **Alor judizialean biktimei laguntzeko zerbitzu espezializatua** egongo dela aurreikusten du.
- ▶ **Biktimen erreparazio-eskubidea** lantzen du, eta pairatutako kaltearengatik ordaina jasotzea, egia aitortzea, indarkeriazko ekintzak ez errepikatzea eta arretarako baliabide publikoen bidez erabat onbideratu ahal izatea bermatzeko neurriak proposatzen ditu. Zehazki, aitzindari izanez, Eusko Jaurlaritzaren laguntza edo neurri ekonomikoak aurreikusten ditu, judizialki ezarritako kalte-ordainak ordaintzen ez diren kasuetarako.